

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### IRUÑA OKAKO UDALA

**Iruña Okako udalbatzaren 2021eko apirilaren 7ko erabakiaren laburpena, zeinaren bidez deialdi publikoa egiten baita kirol elkarte, talde eta klubei dirulaguntzak emateko, 2021ean jarduerak egin ditzaten**

DDBN(Identif.): 558210

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/558210>).

(<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>).

#### **Lehenengoa. Onuradunak**

1. Dirulaguntza hauen onuradun izan daitezke kirol elkarte, talde eta klub publiko zein pribatuak, irabazteko xederik gabe eratuak, sozietatearen egoitza Iruña Okan izanik edo jarduera udalerriri horretan eginik, legez eratuak edo erregistratuak badaude. Era berean, Iruña Okako Elkartearen Udala Erregistroan inskribatuta eta behar bezala eguneratuta egon beharko dute, eta bazkideen, gutxienez, ehuneko 75ek Iruña Okako udalerrian erroldatuta egon beharko dute.

Deialdi honetatik kanpo geratzen dira administrazio batzarrak, ikastetxeak, udal institutuak eta horien barneko edo horiei atxikitako talde eta elkarteak, kirol xederik ez duten elkarte eta erakundeak eta ikasleen gurasoen elkarteak (IGE).

#### **Bigarrena. Xedea**

Deialdi honen xedea da aurrekontu mugak errespetatuz, kirol jardueren gastuak finantzatzen laguntzea, hain zuzen ere elkarte eta entitateek 2021. urtean Iruña Okan sustatzen dituztenak edo udalerriarientzat interesgarri jotzen ahal direnak.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

Iruña Okako udalbatzak 2021eko apirilaren 7ko erabakiaren bidez onetsitakoak. Udalaren web orrian eta Dirulaguntzen Sistema Nazionalean argitaratuko dira.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Kontsultatu oinarri arauen zortzigarren klausula.

#### **Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea**

Eskabideak eta bosgarren oinarrian aipatzen diren agiriak aurkezteko 2021eko maiatzaren 31ra arteko epea egongo da.

Langraiz Oka, 2021eko apirilaren 7a

*Alkate-lehendakaria*

**MIGUEL ÁNGEL MONTES SÁNCHEZ**